



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

EUROPAKO ZUZENBIDE ERKIDEA

Sarrera

Europako Zuzenbide Erkideak badu berezitasun bat: nazioz gaindiko erakundea osatzen du eta estatu kide guztiek bete beharreko arau juridiko erkideak sortzeko gaitasuna du. Europar Batasunaren erakunde-egitura, batez ere, lau organotan oinarritzen da:

- ❖ **Europako Parlamentua.** Kontrolerako eta lankidetzarako, eta arauen arloko lankidetzarako organoa da.
- ❖ **Kontseilua.** Erabakiak hartu eta arauak sortzen dituen organoa da.
- ❖ **Batzordea.** Kudeaketa eta exekuzio organoa da.
- ❖ Luxenburgoko **Justizia-auzitegia.** Organo honek interpretatu eta aplikatu egiten du Europako Zuzenbide Erkidea.

Europako Zuzenbide Erkidea honako hauek osatzen dute: **jatorrizko** edo lehen mailako **zuzenbidea** (itunak); **eratorritako** edo bigarren mailako **zuzenbidearen** arauak, itunak aplikatzeko egokituak; eta beste arau eta printzipio orokor batzuk. Nolanahi ere, Justizia-epaitegiak definitzen du, jurisprudentzia luze eta errotu baten ostean, arau horiek nazio-mailako antolamenduan izaten dituzten izaera, izaera loteslea eta ondorioak.

Jatorrizko zuzenbidea

Europako Ekonomia Erkidegoa eratzeko Itunean eta berau berritzeko ondorengo itunetan jasotzen den antolamendu juridikoa da. Hau da, honako hauek osatzen dute jatorrizko zuzenbidea: Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) osatzeko 1957.03.25eko Erromako Ituna, 1986.02.17ko Europako Akta Bakarra, Europar Batasuneko Ituna (Maastricht, 1992.02.17), 1997ko Amsterdamgo Ituna, 2011ko Nizako ituna eta Lisboako Ituna.

Jatorrizko zuzenbidea **maila altuagokoa** da eratorritako Europako Zuzenbide Erkidea baino.

Erorritako zuzenbidea

Europako erakundeek (Europako Batasuneko Kontseilua eta zenbaitetan Europako parlamentua) osatutakoa da. Honako hauek osatzen dute: Europako **araudiak**, Europako **zuzentarauak**, **erabakiak**, **gomendioak** eta **irizpenak**.

1. **Europako araudiak:** Xedapen erkideak dira, estatu kide guztiek bete behar dituzte eta zuzenean aplikatu ahal dira Aldizkari Ofizialean argitaratu eta indarren sartzen direnetik aurrera. Horien bidez, Europako Erkidegoak diziplinatu egiten ditu bere politikak eta antolaketa.
2. **Europako zuzentarauak:** Xedapen erkideak dira eta estatu kide guztiek bete egin behar dituzte emaitzei edo xedeei dagokienez. Erakunde nazionalen esku uzten du haien araudian sartzea, ezarritako epean, estatu bakoitzeko Antolamendu Juridikoari dagozkion baliabide eta moduen bidez. Horren guztiaren helburua da

xedapen horien eraginkortasuna bermatzea. Zuzentaraua estatu bateko zuzenbidean egokitzea Lege (edo Lege mailako Xedapen) edo Araudi baten bidez gauzatu ahal izango da.

Zuzentarauen bidez, estatu kideen araudiak bateratu edo hurbildu nahi dira, lehiakortasunaren eta merkatu bakarraren mesedetan. Zuzentarauak, hasiera baten behintzat, estatu kideentzat baino ez dira, horiek egokitu egin ditzaten zehaztutako epean.

3. **Europako erabakiak:** Ezinbestekoak dira, elementu guztietan, hartzailleentzat (oro har ez dira estatu kide guztientzat izaten).
4. **Gomendioak:** Ez dira ezinbestean bete behar, Europako erakunde baten ekimenak izaten dira eta modu jakin baten jarduteko gomendioak izaten dira. Kanpoko ekimen baten ondorioz ematen da irizpena.
5. **Irizpenak:** Arau-egintza bat da, ez da loteslea, eta iritzi edo balioespen bat adierazten du.

Justizia-auzitegiaren jurisprudentzia

Jatorrizko zuzenbidea eta eratorritako zuzenbidea interpretatzeko erabakiek (epaiek) arau balioa dute eta zuzenean aplikatu behar dira. Estatu kideek Europako zuzenbidea ez dutela bete deklaratzeko epaiez gain, bereziki azpimarratzekoak dira interpretatzekoak direnak. Horien jatorri da auzitegi nazionalak egiten dituzten “epaitu aurreko auziak”, eratorritako zuzenbidearen (araudiak eta zuzentarauak) edukiaren interpretazio egokiari

buruz edo xedapen nazionalak Europako Zuzenbide Erkidean egokitzeari buruz.

Europako Zuzenbide Erkidea aplikatzeari dagokionez, adierazi egin behar da epaile nazionalaren mende dagoela. Epaile nazionala Europako Zuzenbide Erkidearen ohiko epai bihurtzen da eta bere betebeharra da horren eraginkortasuna bermatzea. Ondorioz, epai eta auzitegi nazionalek ziurtatu behar dute bete egiten direla **Europako Zuzenbide Erkidearen** printzipioak; izan ere, horien arabera ebatzi beharko dituzte Europako araudien eta araudi nazionalen arteko auziak.

Honako hauek dira estatu kideetan Europako Zuzenbide Erkidea aplikatzea arautzen duten printzipioak:

1. **Lehentasunaren printzipioa:** Europako Zuzenbide Erkidea herrialde bakoitzeko arauari (Konstituzioa izan ezik) gailentzen zaie, edozein dela ere horien maila, Europako arauaren (Europako ituna, araudia edo zuzentaraua) aurrekoa edo ondorengoa izan.
2. **Zuzeneko eraginkortasunaren printzipioa:** Europako Zuzenbide Erkideak lotetsi egiten ditu herri-administrazioak, eta nazio-mailako justizia-auzitegien aurrean alegatu daiteke. Zuzentarauen zuzeneko eraginkortasunari dagokionez, Justizia-auzitegiak aitortu egiten die izaera hori, estatu kideek ezarritako epean egokitu gabeko zuzentarauak direnez, betiere horien edukiak eskubide zehatzak eta ez-baldintzatuak ematen baditu partikularren alde. Kasu horietan, epearen barruan egokitu gabeko zuzentarauak aitortzen dituen eskubideak auzitegi nazionalen aurrean alegatu daitezke.